

## Haize-arrosa HELBURUAK

## SAKONTZE MATERIALA 2

- Egoera konplexuak analizatzen eta arazo globalen azalpen zehatzak ematen ikastea.
- Errealitatea ulertzeko alderdi ekonomikoak, politikoak, ingurugirokoak eta gizarte alderdiak harremanetan jartzea.
- Bertako eta urrutiko inguruaren harremanak ulertzea.
- Fenomeno konkretu baten ulermena ostopatzen duten faktoreen ezaguera, zergati sinplistik saihesteko.
- Bizi dugun komunitatearen ekonomi eta gizarte gatazkak analizatzeko kapaza izatea, eta beste kultura eta herrietara eramatea

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA

[http://www.ehu.es/mundilab/pag/eusk/laboratorio/h\\_pedagogicas/enquecons.html](http://www.ehu.es/mundilab/pag/eusk/laboratorio/h_pedagogicas/enquecons.html)

..:Garapena eta ingurugiroa, natura eta gizarte, ekonomia et politikaren arteko harremanak finkatzen lagunduko digu. Horretarako, kontzeptu desberdinak puntu kardinalak ordezkatu dituzte: Izadia (Iparra), Ekonomia (Ekialdea), Harreman Sozialak (Hegoa) eta Moldaketa Politikoa (Mendebaldea). Iparrorratzetan bezala, tarteko ardatzak beren arteko harremanak azaltzen dituzte; esate baterako, natura eta ekonomiaren arteko harremana IEko ardatza azaltzen du. HE ardatzan, ekonomiaren influentzia gizartearengan azaltzen da.

..:Haize-arrosak edozein lekuan ematen den edozein egoeraren faktore ugariak ulertzen eta garapena arazoan sakontzen lagunduko digu. Iparrorratzak leku ezezagun batean orientatzen laguntzen digun bezala, haize-arrosak argazki bat, testu bat edota irudi baten oinarrituriko edozein herriren analisia eta azterketan laguntzen digu.

..:Aukera didaktikoei buruz, esan beharra dago ikasketa errazten duen tresna bakarrik ez dela, baizik eta joera kritikoaren garapenera ere laguntzen duela. Analisi sinpleak saihesten ditu zeren gutxienez lau faktore desberdinen arteko harremanak kontuan izatera behartzen gaitu beti.

..:Gure errealitate lokalari buruzko egindako galderak, egoera horiei buruzko hausnarketa eta analisia bultzatu beharko lukete eta aldi berean urruti dauzkagun kultur eta herrien errealitateei buruzkoak ere.

..:Kontran aldiz, asko ez dakigun eta urruti dauzkagun gaiak buruzko galderak, gure inguruko ezaguera sendotu beharko lukete. Determinismo historikoa, kulturala edota geografikoa saihesteko eta aniztasuna lantzeko era bat da.

..:Arazoak aztertzeke era honen helburuak, elkarren artean ustez zer ikusirik ez duten fenomenoaren erlazioak aurkitzea eta sistema globalean kokatzea da.

Funtsezko ideiak:

Inguruaren azterketa eta Iparra eta Hegoaren arteko konexioen ulermena.  
Egoera lokal guztiak beti dituzte faktoreak amankomunean.  
Errealitate bakoitza konplexua da.  
Bertan, natur, ingurugiro, politika eta gizarte faktore asko jokuan daude...  
Fenomeno guztiak ikuspegi ugariekin aztertua izan daitezke.  
Errealitate lokalak sistema globalarekin konektatuta eta bere menpe daude.